


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Berbizi egitasmoa aurrera eramateko, garrantzitsua da gure negozio-ideia modu errealista batean ikustea. Hori dela eta, zalantzarik gabe, hasiera batean, edukiko ditugun **baliabideak mugatuak** izango dira. Hala ere, etorkizun batean, gure baliabideak eta zerbitzua hobetzea espero dugu, lokal handiago bat erabiliz, langile gehiago kontratatuz, etab.

Gure helburu nagusia kontsumismo deskontrolizatuaren murrizketa lortzea da, eta horrekin batera, herriko denda txikiei nagusitasuna ematea. Hori lortzeko, funtzesko baliabideak behar ditugu, gure bezeroei, ahalik eta zerbitzu onena eskeini ahal izateko eta beraien kontsumo bideak aldatzeko.

Erabiliko ditugun baliabideak azaltzen hasteko, baliabide fisikoekin hasiko gara. Hauek, **lokala, imprenta, eta gailu teknologikoak** izango dira. Lokala, Durangon ezartzea erabaki dugu. Lokalaren helbidea hurengoa da: [Murueta Torre Auzunea Etxetaldea, 9](#). Lokala 85 m²-koa da, solairu bakarra dauka; eta bertan enpresaren administrazio guztia eramango dugu. Hau da, bertan webguneko kontuekin ibiliko gara, eta gure enpresak bezeroarekiko harreman zuzena eskeintzen duenez, harreman horiek sustatzeko bilerak egingo ditugu bertan. Horretaz gain, bertan enpresa hobetzeko erabakiak hartuko ditugu. Bertan izango ditugun gailu teknologikoak direla eta, hasiera batean, langile bakoitzak bere portatil pertsonala erabiliko luke, eta imprenta dela eta, Epson-en erositako bat erabiliko genuke.

Bulegoa: <https://www.idealista.com/inmueble/25849770/>



Baita ere aipatzekoa da giza baliabideen beharra. Proiektuaren funtzionamendua bermatzeko, ezinbestekoak dira langileak, zuzendaritza-taldea eta kolaboratzaileak elkarlanean aritzea, lan-talde sendo bat osatuz. Garazik, taldea **kudeatzea** eta **komunikazio**- eta **gauzatze-jarduerak** gauzatzean arituko da. Raymond produktuen garraioaren **logistikaren arduraduna** izango da, eta bere funtzio nagusia produktuak zuzenean garraiatzen direla bermatzea izango da. Udanek enpresa-administrazioa ikasiko du, eta **administrazio-kudeaketarekin** lotutako jarduerak egingo ditu. Irenek zuzenbidea ikasi nahi duenez, lege-laguntzaile gisa lan egingo du edo **arlo juridikoari** lotutako **administrazio-eginkizunak** beteko ditu.

Bost langile arduratsu eta proaktibo kontratatzen ari gara gure taldearekin bat egiteko. Zeregin nagusiak arropa antolatzea, objektuak ordenatzea eta sailkatzea, eta lan-eremua garbi eta ondo antolatuta mantentzea dira. Xehetasunekiko arreta, ordenarekiko eta antolamenduarekiko konpromisoa eta berehalako prestasuna duten pertsonak bilatzen ditugu. Lan-giro dinamikoa eta eroso eskaintzen dugu, hazteko aukerekin. Interesatuta bazaude, bidali zure eskaera zure harremanetarako datuekin.

Alde ekonomikotik, proiektuaren hasieran oinarritzko materialak eskuratzeko eta lehen inbertsioak egiteko, kapital jakin bat jarriko dugu, zehazki **15.000€** jarriko dugu denon artean, diru horrekin, hasierako administrazio kontu eta materialak ordainduko ditugu.

BALIABIDE FISIKOAK	- Bulegoa Muruetta Torre Auzunea Etxetalea, 9 (https://www.idealista.com/inmueble/25849770/). Bulegoaren barruan biltegia egongo litzateke, ekipo guztia gordetzeko. - Ekipo espezifikoak: Ordenagailua, telefonoa - Azoketarako ekipoa: mahiak,
--------------------	---

	karpak, kanpartak
BALIABIDE INTELEKTUALAK	- Informatikoak: - (Iker Agirresarobe Gallardo Arrasateko Udaltzaingoko informatikaria) - Abokatuak (LAWTEK enpresakoak: https://www.lawtekabogados.com/)
GIZA BALIABIDEAK	- Langileak: 5 langile azoketan ibiliko direnak dena administratzen - Zuzendaritza-taldea webguneko gaiak administratzeko
FINANTZA-BALIABIDEAK	- Diru-laguntzak: → Udalak eskeiniko digun diru laguntza enpresaren hasieran